



Arartekoaren 5/2018/RGO Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 29koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio behar diren jarduketak egin ditzala Gipuzkoara heltzen diren eta familiarik gabe dauden adingabe atzerritarrei harrera egokia emateko.

Antecedentes

1. Arartekoak urtez urte euskal egoitza baliabideen sareko hainbat programa bisitatzeko, babesgabetasun egoeran dauden haurrei eta nerabeei ematen zaien arreta ezagutu, ulertu eta horren kalitatea egiaztatzeko asmoz, eta, azken batean, dauzkaten eskubideak egoki gauzatzen direla baieztatzeko.

2016ko azken hilabeteetatik Euskadira heltzen diren eta familiarik gabe dauden adingabe atzerritarren kopurua nabarmen hazi da; egoera horrek gizarte zerbitzuen sistemak adingabe horien premiei erantzuteko ezarritako egoitza baliabideen sarea asko tenkatu du. Zailtasunak egon badaudela jakinda eta zentroetan pertsona gehiegi egon daitezkeelako ematen den arretaz kezkatuta, 2017. urtetik Arartekoak beharrezkotzat jo du familiarik gabeko adingabe atzerritarrentzako premiazko harrera zentroi (edo lehenengo harrera zentroak) jarraipena egitea, hiru lurralde historikoetan.

Gipuzkoan, 2017ko amaieran Arartekoko zenbait langilek Ubako zentroa bisitatu zuten, eta jardun hori ebazpen honekin amaitu zen: [Arartekoaren 3/2018/RGO Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 24koa](#); horren bidez, familiarik gabeko adingabe atzerritarrak lehenengo harreran arreta emateko iradokitzen zen.

Erakunde honek ondorio bat atera zuen; hala, Ubako zentroan une hartan aurreikusitako gehieneko edukiera zertxobait bat gainditzen bazen ere, iritsieren kopurua denboran modu iraunkorrean igo izanak (eta murrizteko aurreikuspenik gabe) pertsona gehiegi egoteko egoera finkatu eta areagotu lezake.

Premiazko beharrak bermatuta zeudela adierazi zen, profesionalen taldea indartu egin zela eta baliabidearen orientazioari eta hezkuntza lanari eutsi ahal zitzaioela. Nolanahi ere, Arartekoak orduan ohartarazi zuenez, mutil asko ezustean iristearen ondorioz sortutako gehiegizko kopuruak arretaren kalitateari eragin ziezaiokeen; hala, Gipuzkoako Foru Aldundiari iradokitzen zitzaion, arreta handia jar zezala zentroan izan zitekeen gehiegizko jende kopuruan eta horrek eragin zitzakeen ondorioetan.

2. Arartekoak gizarte erakundeekin dituen harremanen esparruan, SOS Arrazakeria Gipuzkoa elkarteak kezkatu agertu zen Ubako zentroan izan ziren gazteek emandako informazioengatik. Bertan harreran izan ziren denboran bizitako esperientziari buruzkoa zen, bai eta Ubako solairuetako batean



hartutako adingabe atzerritarrei ematen zitzairen arretari buruzkoa ere (zentrora heldu berriak hartzeko erabiltzen den solairuan, hain zuzen).

Informazioa egiaztatu ahal izateko eta neska-mutilen ahotik (adinez nagusiak, dagoeneko) Uban izandako esperientzia nolakoa izan zen zuzenean entzuteko, erakunde honetako langileak Marokotik eta Kamerundik etorritako 17 gazterekin (15 mutil eta 2 neska) bildu ziren uztailean; gazte horiek guztiak harremanen bat duten elkarte hauetakoren bateko ordezkariekin agertu ziren: SOS Arrazakeriak, Kolore Guztiak eta Peñascal Fundazioa.

Bileran parte hartutako pertsonak hainbat epetan bizitako esperientziak kontatu zituzten (2013, 2015, 2016 eta 2017), eta 3-8 hilabete arteko egonaldiak kontuan hartuta.

Bileran, bere ustez, defizit handiko edo hobetu beharreko gaiak jorratu ziren. Nolanahi ere, esker oneko hitzak ere izan zituzten eta Ubako egonaldiko bi elementu positibo nabarmendu zituzten: gaztelaniako eskolak eta hezitzaileek emandako tratua.

Bileran gazteek aipatutako arazo nagusiak hauek izan ziren:

- Bertara iristean baliabideko bigarren solairura eramaten dituzte, denbora aldagarri batez egoten dira han (gehienak, pare bat aste; baten bat, bi hilabete) eta toki horren izaten dituzten baldintza kaskarrak salatu dituzte: geletatik atera gabe egon behar dute, gelan jaten dute, heltzean familiari dei diezaiokete, baina ezin dute berriz deitu 15 egun pasa arte, bisitarik ezin dute jaso (Gipuzkoan bizi diren anai-arrebena ere ez) eta ez dira kanpora ateratzen.
 - Bigarren solairuan dauden denbora-tartean hezitzaileekin komunikatzen dira (arabieraz hitz egiten dutenak, batez ere), eta behin eta berriro adierazten diete Gipuzkoan ez dutela etorkizun handirik izango. Mutiletako batek kontatu du presio psikologikoa sentitu zuela, *“ea horrela alde egiten dugun ikusteko”*, eta adierazi duenez, zentroan izandako lehenengo egunetan *“bakarrik zaude, izututa, ezagutzen ez duzun toki batean eta, hezitzaileak alde batera utzita, beste inoren erreferentziarik ez duzu, eta hezitzaile horiek informazioa ematen dizute eta Gipuzkoan geratuko zaren edo bertatik alde egiteko erabakirik hartu duzun galdetzen”*.
3. Gazteekin bildu ondoren eta haiek helarazitako informazioa aztertuta, erakunde honek Ubako zentrora ikuskapen-bisita bat egiteko eskaera egin zuen honako hau berriaz jakiteko: zentroko bigarren solairuan hartzen dituzten heldu berri adingabeei hezkuntza-arreta zer baldintzetan ematen zaien; hala, bertan denboraldi batez egon izan diren gazteekin egindako bileran eskuratutako informazioa egiaztatu ahalko da. Bisitaren bigarren helburua zen, alde batetik,



iristen diren hainbeste adingaberi erantzuteko zentroa zer egoeratan dagoen, eta bestetik, haiei ematen dieten arretaren kalitatea zein den jakitea.

Uba zentrorako bisita 2018ko irailaren 14an egin zen, aldez aurretik abisatu gabe. Arartekoko langileak arabierako interpretearekin agertu zen bertan hartutako adingabeekin komunikazioa bermatzeko. Hirutan banatu zen bisita: lehenik eta behin, baliabideko arduradunarekin hitz egin zuten; ondoren, bigarren solairuko instalazioetan bisita labur bat egin zen eta, azkenik, erakunde honekin beren borondatez hitz egin nahi izan zuten mutilekin bakarkako elkarrizketak egin zituzten.

Zentroa bisitatu zenean, 70 adingabe zeuden bertan, haietatik 60 bakarrik dauden adingabe atzerritarren programan.

Zentroak 38 plaza ditu itunduta (2017ko uztailetik kopuru hori igo egin da pixkanaka); hala, gainerako plazen kostua baliabidearen erakunde kudeatzaileak bere gain hartu du duela gutxi arte (Zabalduz Kooperatiba, Agintzari taldekoa), eta egoera horrek erakunde horri ahalegin ekonomiko handia eragin dio.

60 mutil horiek honako era honetan zeuden banatuta une hartan:

- 14, lehen solairuko 7 gela bikoitzetan.
- 46, bigarren solairuko 8 gelatan eta egongelan. Gelak bisitatu genituen, eta 2-3 ohe eta 1-2 koltxoi zeudela lurrean ikusi genuen. Geletan armairuak eta gazteen gauzak zeuden, baina mugitzeko leku oso gutxi.

Solairu bakoitzeko egonaldia luzatu da egoitza-harrera sareak gainezka egotearen ondorioz eta gero eta adingabe atzerritar gehiago etortzearen ondorioz. Lehenengo harrerako zentroa bertan egonaldi bizkor bat egiteko zegoen pentsatuta hasieran, hau da, adingabeen premiak baloratzeko eta premia horiek erantzuteko egokiena zen sareko baliabide egokiena esleitzeko beharrezkoa den denboran, ez gehiago. Egonaldiak, zentroko arduradunak kontatu zuenez, bost bat hilabete irauten du bigarren solairuan eta lau hilabete lehenengoan.

Hezkuntza taldea 20 bat hezitzailek osatzen dute txandaka, eta kohesionatuta dago, laneko baja esanguratsurik izan gabe. Nolanahi ere, taldea ordaintzen ari da denbora luzean zehar jasaten ari den gehiegizko lana eta itundutako plazak baino askoz gazte gehiagori arreta eman behar izatea; nekatuta daude, ilusio faltarekin, eta ezintasun-sentsazio handia dute hartzen dituzten gazteekin ezin dutelako merezi duten bezala lan egin. Adingabe kopurua asko handitu dela eta, administrazioko lana nabarmen handitu da; aldiz, hezkuntza lan gutxi egin dezakete. Erakunde honen aburuz, datu esanguratsu bat da gazteekin egiten diren tutoretzak taldekakoak direla, ezin baitiete arreta bakarka eman.



Zentroko arduradunarekin izandako elkarrizketa bigarren solairuaren funtzionamendua izan zuen oinarri, bai eta leku horretako egonaldien baldintzak ere. Jakinarazi duenez, gazteak, bertara iristean, bi egunez egoten dira atsedean hartzen, urduri eta bidaiagatik oso nekatuta heltzen baitira. Tarte horretan, hezkuntza taldeko kide batek azaltzen die zein den Gipuzkoako egoera eta zentroan zenbat denbora egongo diren. Egoera hori errealista eta beharrezkoa dela dio, gazte asko buruan errealitatearekin bat ez datozen ideiak dituztela etortzen baitira.

Lehen uneetan adingabeek familiari dei diezaiokeste non dauden esateko eta bidaia luzea egin ondoren ongi daudela esateko. Familia batzuek gazteak Gipuzkoan geratzeko presionatzen dituztela dio (familiako migrazio-proiektuak dira). Zenbait mutilek, lehenengo ordu eta egun horietan, Europarako bidean edo Gipuzkoan jarraitzen duten erabakitzen dute.

Zentrorra iristean gorputz-miaketa arin bat egiten zaie eta zer gauzarekin datozen ikusten, xede honekin, bereziki: bizikidetzarako arriskutsuak izan daitezkeen elementuak ez sartzea.

Heldu eta handik bi egunera, gazteak bigarren solairuko eguneroko bizimodua egiten hasten dira, arduradunak kontatu duenez, hau da, egokitzapen-programan sartzen dira eta goizean nahiz arratsaldean jarduera bana egiten dute, biak ala biak iraupen laburrekoak: gaztelania, kirol eta adierazpeneko ikastaroak.

Dena den, zentrorra egindako bisitako unean ikusitakoaren arabera, gazteak lasai asko ari ziren solasean korridorearen eta gelen artean, eta ez dirudi dagoenik antolatutako, prestakuntzako, kiroltako eta aisialdiko jarduerarik. Arartekoko taldeak egiaztatu ahal izan zuen jarduera bakarra honako hau izan zen: hiruzpalau gazte gaztelania ikasteko beren gelan betetzen ari ziren banakako fitxa batzuk; haien bidez, sortzen zitzaizkien zalantzak argitzen zituzten.

Zentroak ez du lursail irekirik eta, hortaz, zaila da harreran daudenak segurtasunez eta hezkuntza laguntzailearen kanpora ateratzea. Erakunde honen aburuz, horrekin berriz ere egiaztatzen da zentroa lehenengo harrera egiteko eta egonaldi laburretarako prestatuta dagoela, ez orain bezala egiten diren denboraldi luzeagoak egiteko.

Finean, arazo nagusia egonaldiaren iraupena eta zentroko bigarren solairuko baldintzak direla ikusi da, horrek handik egun osoz eta egonaldi osoan zehar ez irtetea baitakar. Hau da, gelan egiten dute bizimodua, bertan egiten dute lo eta han egoten dira egun osoan, egongela beste gela bat bihurtu baita. Solairu horretan harreran hartutako gazteak ez dira zentrotik ateratzen –ezta kanpora ere, ez baitu patiorik eta aisialdiko eremutik– kudeaketak egiteko salbu (medikura, poliziarengana joatea, adibidez). Programatutako prestakuntza eta



aisialdiko ekintzetan ere ez dute parte hartzen. Interesa duenak baino ez ditu betetzen gaztelania ikasteko fitxak.

4. Zentroko arduradunarekin bildu eta instalazioetan bisita bizkor bat egin ondoren, Arartekoko langileak beraiekin hitz egin nahi izan zuten harreran hartutako zazpi adingaberekin bildu ziren, patxadaz, beren borondatez eta konfidentzialtasun osoarekin.

14 eta 17 urte arteko elkarrizketatutako adingabeen egonaldia aldakorra da: astebete eta haietako lau egon ziren bi hilabete artean. Denek diote zentrorra heldu zirenean jakinarazi zitzaiela bi egunez egongo zirela gelan, zentroko egonaldia luza zitekeela eta ezin izango zutela beren administrazio-egoera arautu. Zenbaitek zioten, iritsi zirenean, iradoki zietela Gipuzkoan aukera handirik ez zegoenez, egokiena, agian, zentroan ez geratzea zela.

Elkarrizketatutako guztiek zioten lehen unetik izan zutela familiekin harremanetan jartzeko aukera eta, zentroan, bi astetik behin hitz egiten zezaketela telefonoz haiekin. Nolanahi ere, denek eskatzen dute familiekin harreman handiagoa izatea, lehen ordenagailuz eta sare sozialen bidez hori egiteko aukera zuten, baina orain ezin dute halakorik egin.

Elkarrizketatutako guztiek esandakoaren arabera, zentroan antolatutako jardueraren batean parte hartzen duten bakarrak (prestakuntzakoa, ludikoa) lehen solairuan bizi direnak dira; horrenbestez, jardueretan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da lehen solairuko norbait zentrotik behin betiko irtetea bigarren solairuko bat jaitsi eta taldean sar dadin. Egun osoan zentroan ezer egin gabe daudela diote, gaztelaniako fitxa horiek betetzeko duten aukera hori alde batera utzita. Zentroan denbora gutxien zeramaten bi gazteek (astebete eta bi aste, hurrenez hurren) esan zuten denbora-tarte horretan ezin izan zutela zentroaren kanpoaldera ere irten. Denek nahi zuten hezkuntza jardueretan parte hartu, eta gazteenek, 14 urtekoek, zioten eskolara joan nahi zutela.

Hezkuntza taldeak ematen dieten tratu ona ere azpimarratu zuten, bai eta bertakoen arteko bizikidetzaren egokia ere.

5. Azaroaren amaieran saileko haurren zerbitzuarekin bilera bat egin zen, bisitan eta zentroan bizi izandako adingabe eta gazteekin egindako bileretan eskuratutako informazioa egiaztatu eta osatzeko asmoz, erakunde honek normalean egin ohi duen moduan.

Une horretan, Uban 74 gazteri ematen zitzaaien arreta dagoeneko. Haurren zerbitzuko arduradunak une hartan zuen informazioaren arabera, zentroan denbora gehien daramana ez da sei hilabetera heltzen.



Arartekoak zentrorra egindako bisitatik igarotako asteetan, ordura arte fisikoki Ubako zentroan zegoen neurri judizialen jarraipenari buruzko programa beste leku batera aldatu da.

Elkarrizketa horretan, Arartekoko langileak kezkatu ziren baliabideko bigarren solairuan harreraren hartutako gazteak denbora gehiegi zeudelako eta bertan daudenentzako jarduera programaturik ez zegoelako. Kezka hori sortu zaie, ikuskapen-bisitan egiaztatutako jarduera ezaren ondoren eta adingabeen ahotik zuzenean entzundakoaren ondoren, hau da, jarduerak egiteko talderen batean parte hartu ahal izateko nahia zutela, baina ez zutela horretarako aukerarik norbait zentrotik joan arte eta haren lekua hartzeko aukera izan arte –iritsieraren hurrenkerari jarraituz– baliabideko lehen solairuan. Haurren zerbitzuko arduradunak alderdi hori zalantzan jarri zuen, eta bigarren solairu horretan hezkuntza jarduera programatuak egiten zirela ere adierazi zuen. Erakunde hau ez dator bat adierazpen horrekin; izan ere, bisita egin zutenenean behintzat, zentroak ez zuen ekintza horiek egiteko lekurik, espazio guztiak, jantokia izan ezik, gela gisa erabiltzen zirelako. Tailerretarako duen espazioa gazteekin lehen solairuan egiten diren ekintzetarako erabiltzen da.

Haurren zerbitzuko arduradunak jakinarazi zuenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 8 zentro berri zabaldu ditu 2018an, haietako 7 egoitza izaerakoak. Zentroetako bat duela gutxi zabaldu zuten Seguran, emantzipaziorako prestakuntza-programa hartzen du eta Gipuzkoan familiarik ez duten adingabe atzerritarrentzat da (16 urtetik gorakoak). Aurreikusita da, 32 lagunentzako eta pixkanaka aktibatuko diren 4 hezkuntza-unitate bereizi gisa (ebazpen hau ematen den datan dagoeneko egiten hasi da) pentsatutako azken zentro hau irekita, Ubako zentroko adingabeak lekuz aldatu ahal izango direla eta, beraz, egun duen okupazio handia murriztu ahal delako. Emantzipaziorako bi baliabide ere abian jarri dira (4 plazakoa bakoitza), eta 2019aren hasierarako beste bi aurreikusita daude. Horrek guztiak egoitza-harreraren sarea arintzen lagunduko du. Haurren zerbitzuak, dena den, jakin badaki zentro berriak zabaltzea ez dela lurraldez gairik egiturazko arazoaren irtenbidea, beste maila bateko irtenbideak eta erabakiak eskatzen dituenak, baina beharrezkoa dela Gipuzkoako babes sarea bereizarazten duen arreta mailari eusteko.

Zentro berriak irekitzeko orduan haurren zerbitzuak eta baliabideen erakunde kudeatzaileek topatzen duten arazo nagusi bat, kokapenez gain, nerabe babesgabe horiei arreta emateko behar besteko esperientzia duten hezitzaileak kontratatzea da.

Gogoetak

1. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak xedatzen duenez, haur eta nerabe guztiak, inolako bereizketarik gabe, hau da, beren jatorria, arraza edo egoera kontuan hartu gabe, eskubidedunak dira, hortaz, eskubidea dute erabat



garatzeko, hezkuntzarako, ahalik eta osasuntsuen egoteko, babestuak izateko... Espainiak sinatutako nazioarteko hitzarmen hori betetzeko eta bertan jasotako xedapenak garatzeko onartu dira gaur egun indarrean dauden lege guztiak, haur eta nerabeak babestekoak (bai estatu mailakoak, bai autonomia-erkidegokoak). Administrazio guztiek lege horiek bete behar dituzte, dagozkien eskumenen barruan.

Testuinguru horretan, lehendabizi azpimarratu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak berehala hartzen dituela bere lurraldera heltzen diren gazte guztiak, eta arreta ematen diela. Adinez txikikoak direla egiaztatuta (daukaten dokumentazioa ikusita edo fiskaltzaren dekretuaren bidez), foru aldundiak bere gain hartzen du haien tutoretza, ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraikiz.

Uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituenak, haurrak zaintzeko hautabideei buruzko nazioarteko gomendioekin bat etorri eta euskal administrazioaren betebeharrak gauzatze aldera, zenbait zerbitzu, baliabide eta zentro ezartzen ditu. Horiek familiaren ahalik eta antzekoena den ingurune bat sortzea dute helburu, haurrak han bizi eta erabat gara daitezten, alegia, ingurune seguru bat sortzea, duintasunez bizitzeko eta hazteko. Hortaz, langile/haur ratio egokia duten baliabide txikien alde egiten du dekretu horrek. Izan ere, horrelakoetan, konfiantzazko eta erreferentziazko harremanak sortzen dira, eta horrek aukera ematen du edozein familiak ematen duenaren pareko bizi-euskarria eta hezkuntza-laguntza emateko. Haur eta nerabe guztientzat, haien jatorria, arraza eta bestelako baldintzak gorabehera.

Premiazko harrerako zentroek ere heziketa-esparruak izan behar dute, bertan igarotzeko denbora laburragoa izan arren. Segurtasuna eta baldintza duinak eskaini behar dituzte, haur eta nerabeei garatzeko aukerak emanez.

Ubako lehen harrerako zentroak gehienez 38 lagunentzako lekua du. Arartekoak azken urtean egindako bi bisitetatik ondorioztatu duenez, eta foru aldundiko haurren zerbitzuarekin alderatu duena, zentroan jende gehiegi zegoen: 2018ko irailean 60 gazte zeuden harreran hartuta, eta bi hilabete geroago, 74.

Aurrekarietan dagoeneko aipatu denez, familiarik gabe Gipuzkoara iritsi diren adingabeen kopuruak gora egin du 2016. urtearen amaieratik. Egoera horretan, adingabeen kopurua etengabe igotzen ari denean, foru administrazioak zailtasunak ditu arreta eskaintzeko; onartu beharra dago zaila dela, baliabide publikoak efizientziaz kudeatu nahi izanez gero, zentroak irekita mantentzea, noiz erabiliko zain; ondorioz, behin sortutako baliabide gehienak ez dira aldatzen (plaza batzuk libre dituzten arren). Heltzen diren pertsonen kopurua, hala ere, ezin da aurreikusi; baliteke aldizkakoa edo iragankorra izatea, hortaz, ulergarria da batzuetan, aldi laburretan, erabiltzaileen kopurua gehiegizkoa



izatea.

Arrazoi hori tarteko, erakunde honek nabarmendu nahi du lurraldean zentro berriak zabalduz Gipuzkoako Foru Aldundiak zer-nolako ahalegin handia egin duen. Zabaldutako zentroetako batek emantzipaziorako prestakuntza-programa hartzen du, eta Gipuzkoan familiarik ez duten adingabe atzerritarrei bakarrik emango die arreta. Zentro hori zabaltzeari esker eta beste zenbait programa batzuk garatzen dituzten harrera-sareko beste baliabide batzuei esker (oinarrizko programa, emantzipazioa), Uban hartutako adingabeak beste leku batzuetara bideratu ahalko dira eta, hala, lehen unean behintzat, lehen harrerako zentroaren okupazio maila murriztea espero da.

Hala ere, aurreko esperientzia batzuk eta Bizkaian ikusitako joera kontuan hartuta, zuhur jokatu behar dugu, harrerako zentroa berriak zabaltzeak ez baitu bermatzen okupazio maila jaitsiko denik epe ertainean. Hortaz, beharrezkoa da foru aldundiak bere zentroetako okupazio mailei buruzko arretarekin jarrai dezan.

2. Zentroan gaur egun pertsona gehiegi badago ere, gazteek ez dute arreta txarra jasotzen. Administrazioak ostatu emateko eta elikadurarako oinarrizko premiak bermatu ditu, eta medikuek egin beharreko jarraipena eta dokumentazioaren izapidea ere bermatze bidean daude.

Arartekoaren kezka nagusia da ez dagoela prestakuntzari (gaztelaniako eskolak...) edo aisialdiari lotutako inolako jarduera programaturik. Arreta ematen zaien gazteen bolumen handia eta zentroko instalazioaren ezaugarriak zein diren ikusita (kirol kantzak dituen patiorik edo atari zabalean egin beharreko aisialdirako tokirik ez dago), bertan dauden gazteek egoitza-baliabidearen barnean egon behar dute eguneko ordu askoan.

Arazo nagusia zentroko bigarren solairuan egoten diren denbora da, handik ezin baitira irten egun osoan eta bertan dauden denbora osoan. Hau da, gelan egiten dute bizimodua, bertan egiten dute lo eta han egoten dira egun osoan, egongela beste gela bat bihurtu baita. Solairu horretan harreran hartutako gazteak ez dira zentrotik ateratzen –ezta kanpora ere, ez baitu patiorik eta aisialdiko eremutik– kudeaketak egiteko salbu (medikura, poliziarengana joatea, adibidez).

Prestakuntza eta aisialdiko jarduera programatuetan ere ez dute parte hartzen lehen solairuko baten bat sareko beste egoitza-harrerako beste baliabide batera eraman eta plaza bat libratzen den arte. Lehen solairura jaisten den une horretan hasten da, hain zuzen, jarduerak egiten dituzten taldeetan parte hartzen. Bigarren solairuan dauden bitartean, interesa duenak baino ez ditu betetzen gaztelania ikasteko fitxak.



Bestalde, arreta emandako pertsonen bolumen horrekin ere ez dirudi harreran hartutako adingabe bakoitzari jarraipen pertsonalizatu bat bermatzen zaionik; izan ere, erakunde honetara helarazitako informazioaren arabera, tutoretzak ezin dira banaka egin, taldeka baizik.

Bistan da, erakunde honen aburuz, adingabe gutxiago egonez gero eta itundutako plazen arabeko jende kopurua balego zentroan, harreran hartutako adingabeei eskainitako jardueren programazioa eta hezkuntza arloko arreta bakoitzaren premiei emandako erantzuna egokia izango zela, Arartekoak azken urteetan Ubako zentroan egindako jarraipen eta bisitetan ikusi ahal izan den moduan.

Zentrorra heldu eta lehenengo bi egunetan, adingabeek egoitzari eta Gipuzkoaren egoerari buruzko oinarrizko informazioa jasotzen dute. Elkarrizketatutako gazte batzuek kontatu dutenez (jada tutoretzapean ez daudenak nahiz Uban hartutakoak), hezkuntza taldeak emandako lehen informazio horiek zalantza handiak sortzen dizkiete, eta nolabaiteko presioa sentitzen dute honen gainean: Gipuzkoan geratu edo Europarako bidean jarraitu. Zentroak argudiatzen duenez, beharrezkoa da heldu berriek izango dituzten aukerei buruzko informazio errealista ematea, asko errealitatearekin bat ez datozen itxaropenekin etortzen baitira. Iristen diren gazteek bi helburu nagusi dituztela esan digute: beren administrazio-egoera arautzea eta lan bat lortzeko prestakuntza jasotzea. Une hauetan, adingabe atzeritarrentzako prestakuntzako aukerak asko murriztu dira eta administrazioko arautze-prozesuak gehiago luzatzen ari dira, eskaeren bolumenagatik, hain zuzen; beraz, hezkuntza taldeak beharrezkoa ikusten du lehen egun horietako itxaropenak argitu eta egokitzea.

Gazte askorentzat behintzat, informazio hori nahasgarria da eta, gainera, ezin dute egiaztatu egun horietan hezitzaileekin bakarrik hitz egiten dutelako. Zenbaiten iritziz, informazio hori ematearen arrazoia bertan geratzeko asmoa burutik kentzea da, eta horren ondorioz, Gipuzkoan ez zaiela harrera ona egiten sentitzen dute.

Erakunde hau bat dator lehenago adierazi den irizpidearekin, hau da, adingabeak iristen diren lehen uneetan beren egoera arautzeko eta prestakuntza jasotzeko dituzten aukerei buruzko informazio errealista jaso behar izanarekin; horrekin batera, lurraldean izan dezaketen ibilbideari (egoitzabaliabideak...), zentroko funtzionamendu-arauei eta aurreikusten den egonaldinari buruzko informazioa. Lehen informazio hori garrantzitsua da pertsonak beren migrazio-proiektuaren gainean erabaki ahal dezan. Jabetzen da ere, informazio berberak interpretazio bat baino gehiago izan dezakeela, eta horregatik, hain zuzen, behar bezala zaindu behar dela zer informazio ematen den eta nola.



Lehenik eta behin eta ahal den neurrian, informazioa idatziz eta beraiek ulertzeko moduan eman beharko zen. Hori baino garrantzitsuagoa da, ordea, honako hau zaintzea: erabakiak hartzeko ematen den informazio errealista horrekin batera, gazteei helarazten zaien mezuak azpimarra ditzala lehen harrerako zentro baten bereizgarri diren harrera, zaintza eta babesak.

3. Gipuzkoara heltzen diren adingabe batzuek lurralde horretan harremana izaten jarraitzeko senideak dituzte, nahiz eta beren zaintzaz arduratzeko familia izaerarik ez izan.

Jadanik tutoretza beharrik ez zuten gazteek erakunde honekin egindako bileran azaldu zuten, Gipuzkoan familia izan arren (anai-arrebak, zehazki), ezin zuten haiekin harremanik izan eta bisitarik jaso, aldian-aldian egin zitzaketan telefono deiak alde batera utzita.

Arartekoaren iritziz, baldin eta harreran hartutako adingabeentzat onuragarria bada, familiarekin jatorrizko herrialdean harremana izaten lagundu behar zaie, eta baita Gipuzkoan izan dezaketan familiarekin ere, azken kasu honetan, aisialdirako tartean senideen etxeetara bisitak edo irteerak eginez.

4. Zentroetako profesionalen taldeak, hezitzaile guztiak, ezinbestekoak dira esku hartzeko. Beren esku dago tratu txarren eta arduragabekeriaren ondoriozko kalteak, kasu batzuetan oso handiak, jasan dituzten haur eta nerabeen bizitza berreskuratzea. Profesionalek bere lana ondo egiten badute, haurren mina, indarkeriaren eta gabezia materialaren, eta batez ere, afektiboaren ondorioak arintzeko aukera sortuko da. Hezitzaileak egotea, konpromisoa, hurkotasuna sine qua non baldintzak dira heziketa-lana garatzeko.

Arartekoak ezagutu duen errealitatea hau da: esperientzia eta inplikazio handiko profesionalak nekatuta daude, denboran luzatzen den urduritasun egoeran lan egin behar dutelako; ondorioz, haien egoera pertsonala okertu egiten da eta murrizten da adingabeen heziketa eta terapia prozesuan laguntzeko gaitasuna.

Nolanahi ere, onartu behar da, zentroan pertsona gehiegi egoteko egoera hori denboran zehar asko luzatu bada ere eta horrek hezkuntza taldeari neke eta etsipen handia eragin, erakunde honek zentrora egindako azken bisitan honako hau ikusi zuela: bizikidetza giro lasaia eta ona zegoela adingabeen artean eta hezkuntza taldeko profesionalak errespetatzen zituztela. Horren harira, erakunde honek elkarriketatutako adingabe guztiek nabarmendu dute beraien artean bizikidetza egokia zutela eta hezkuntza langileek arreta ona ematen zutela.

Segurako egoitza-zentro berria zabaldu izanak (emantzipaziorako prestakuntza-programa hartzen du) eta pixkanaka-pixkanaka okupatzeak, Ubako lehen harrerako zentroa arintzea ekarriko du.



Erakunde honek baliabidearen erakunde kudeatzailearen bidez jakin ahal izan duenez, zentro berri hori zabaldu izanak eta Ubako nahiz Segurako plaza guztien kostua foru aldundiak ordaintzeak, horrek guztiak, arnas handia eman dio profesionalen taldeari, kontuan hartuz azken bi urteetan maila guztietan zer-nolako lan eskerga (neurritz kanpokoak) egin duten.

5. Azken gogoetak migrazio prozesuekin du zerikusia, horien baitan gertatzen baita adingabe horiek toki batetik bestera joateko joera. Fenomeno hori tokiko maila baino askoz harago doa eta ikuspuntu zabalagoa eskatzen du; izan ere, mundu mailan gertatzen ari da, konplexua da eta eragile asko ditu. Mundu mailakoa izatea ezin da inola ere argudio gisa erabili gure lurraldera heltzen diren gazteei arreta emateko ardura alde batera uzteko; hala ere, hausnarketa zabalagoa oinarri hartuta jokatu behar da, eta horretan foru administrazioak parte har dezake.

Erakunde honen eskumenaren mugan, Arartekoak ez ditu proposatuko autonomia-erkidegotik kanpo egin beharreko jarduketak (horiek ere egin behar direla jakinda ere). Hala ere, Arartekoaren iritziz, Euskadi, gizarte gisa, hemen aztertzen ari dena bezalako egoeretan ematen duen erantzunaren bitartez definitzen da. Jakina denez, euskal erakundeek elkartasunaren ikuspegitik bideratzen dute beren jarduna eta ahaleginak egiten dituzte etorkinen beharrei abegikortasunez erantzuteko. Hori azalduta, Arartekoak uste du Euskal Autonomia Erkidego osoaren mailan jardun behar dela familiarik gabe dauden adingabe atzerritarren beharrei erantzuteko, parte hartzen duten erakunde guztien arteko hausnarketa oinarri hartuta. Erakunde honen iritziz, lurralde guztiek era koordinatuan eta solidarioan erantzun behar dute, bestela ezinezkoa izango baita oraingoa bezalako egoerari aurre egitea, "zentroek gainezka egiten dutenean". Testuinguru honetan, komenigarria izango litzateke jarduteko protokolo komuna ezartzea, 131/2008 Dekretuak eskatu duena betez; horrela, aukera izango litzateke estatu mailako protokoloaren mugak gainditzeko eta Arartekoak bultzatzen duen hausnarketa partekatuen ondorioz zalantzarik gabe sortuko diren beste kontu batzuk behar bezala lantzeko.

Ondorioak

Hori guztia dela eta, gure esku-hartzea amaitutzat jotzen dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiari honako **gomendio hauek** emanez:

- gogoetetan aipatutako elementuen gaineko arretarekin jarrai dezala, zentroan dagoen gehiegizko jendeari dagokionez, batez ere,



- neurriak har ditzala Uba zentroko gazte guztiek lehen unetik hezkuntza eta aisialdiko jarduera programatu guztietan parte hartu dezaten, adingabe bakoitzaren egoera eta premia bereziak aintzat hartuta,
- Gipuzkoara iristean adingabeei ematen zaien lehen informazioa zaindu dezala, erabakiak hartzeko informazio errealista harrera eta babes mezuarekin uztartu dadin.
- adingabeek beren familiekin harremana izateko erraztasunak eman ditzala, jatorrizko herrialdean edo Gipuzkoan, kasu honetan, bisiten bidez,
- zentroetako profesionalen osasuna zaindu dezala, denboran luzatzen den estresaren ondorioei dagokienez, bereziki
- Euskal Autonomia Erkidegoko edo estatuko erakundeek, familiarik gabeko adingabeen egoera azertu eta horri elkarren artean aurre egiteko asmoz, antola ditzaketan ekimenetan era aktiboan parte hartzen jarrai dezala.